



*Elkarretaratze bat egingo dute ostiralean, 13:00etan, Untzaga plazan; eta Ipurua futbol zelaian izango dira larunbatean, 17:30ean, Eibarren futbol partida hasi aurretik. Langileek bitartekaritza lan serio eta gardena egitea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari, ALFA taldearen etorkizuna bermatzeko.*

Hauxe da Alfako langileek gaur igorri duten oharra:

2017ko abenduak 27an epaileak Alfa Precision Castingen (APC) likidazioa onartu ondoren, Greba Batzordeak bilerak izan ditu Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarekin eta Administradore Konkurtsalarekin.

Eusko Jaurlaritzarekin izan genuen bilerari dagokionez, Industria saileko zuzendariak argi utzi zuen inbertsore batzuen interes erreala dagoela APCren inguruan. Gure aldetik, aurreko eskaerak berretsi genituen, lanpostuen eta etorkizuneko proiektu industrial baten aldeko apustua egin zezaten.

Azken hilabeteotan EAEko hainbat enpresa likidazio prozesu batera iritsi dira, ehundaka lanpostu suntsituz. Eusko Jaurlaritzak eta Instituzio Publikoek paper aktiboagoa izan behar dute hemengo industriaren defentsan. Horregatik eskatzen diogu bitartekaritza lan serio eta garden bat egitea enpresa honen etorkizuna bermatzeko.

Administradore konkurtsalari dagokionez, gure eskaerak mantentzen ditugu:

- Enpresa lote bakar batean saltzea.
- Lan postuen subrogazioa.
- Kaleratze traumatikorik ez egotea.
- Jarraitu nahi ez duten langileen indemnizazioa hobetzea.
- Prozesu hau guztia irizpide garden eta objetiboak jarraituz egitea.

Gogorarazten dugu egoera honen errudun bakarrak hiru pertsona direla: Jon Ander Buenetxea, Iñaki Uzkudun eta Jorge agirrebeña. Hartzekodunen Hitzarmen bat indarrean zegoen bitartean, zorrak ordaindu beharrean, 2.289.092 euro banatu zituzten hiruren artean. Diru hau Industrias GOLen salmentaren ondorioz “prima” moduan banatu zuten. Gainontzeko diruarekin ez dakigu zer egin zuten, baina SPRIk argitaratutako informazioaren arabera, 22 miloi eurotan saldu zen Industrias GOL.

Abenduak 11tik langileak greba mugagabe egoera batean aurkitzen dira, jarraipena oso ona izaten ari da eta langileok borrokan jarraitzeko asmoa daukagu.

—